

Biztanleria Aktiboaren Inkesta
2024ko lehenengo hiruhilekoa

Langabezia-tasa % 8,82koa da, autonomia-erkidegoetako seigarren baxuena, aurreko hiruhilekoan baino 0,43 portzentaje-puntu txikiagoa

Aurreko hiruhilekoaren aldean 1.100 pertsona okupatu gehiago daude

2024ko apirilaren 26a

Pertsona langabeen kopurua % 4,78 jaitsi da aurreko hiruhilekoaren aldean, eta 29.400 dira. Azken 12 hilabeteetan % 26,80 jaitsi da langabezia. Urtaro-eraginik gabeko terminoetan, hiruhilekoko aldakuntzak % 0,69ko beherakada izan du.

Pertsona okupatuaren kopuruak % 0,36ko igoera izan du Nafarroan 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 303.900 dira guztira. Azken 12 hilabeteetan, enpleguak % 5,35eko igoera izan du. Urtaro-eraginik gabeko terminoetan, hiruhilekoko aldakuntza % 0,97koa izan da.

Pertsona aktiboaren kopuruak % 0,11ko jaitsiera izan du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 333.300 dira guztira. Urte arteko terminoetan, biztanleria aktiboak % 1,42ko igoera izan du.

270.500 etxeetatik, 11.700ek kide aktibo guztiak langabezian dituzte; aurreko hiruhilekoan baino 2.800 gehiago dira, eta duela urtebete baino 3.700 gutxiago.



OKUPATUAK ETA ENPLEGU-TASA

Biztanleria okupatua. Okupatuak kopuruak gora egin du, eta 1.100 okupatu gehiago dira (% 0,36 gehiago) 2024ko lehen hiruhilekoan; guztira, 303.900 dira. Azken hamabi hilabeteetan, 15.400 okupatu gehiago egon dira; alegia, % 5,35eko igoera egon da, aurreko hiruhilekoan erregistratutako tasa baino 3,64 portzentaje-puntu txikiagoa.

Sexuaren arabera, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, enpleguak gora egin du hiruhileko honetan gizonen kasuan (100 gizon gehiagok dute enplegua) eta behera emakumeen kasuan (1.100 gutxiagok dute enplegua). 162.900 gizon daude enpleguarekin (duela urtebete baino % 5,23 gehiago), eta 141.000 emakume (duela hamabi hilabete baino % 5,46 gehiago).

Enplegu-tasa. Enplegu-tasa (okupatuaren ehunekoa, 16 urteko eta gehiagoko biztanleei dagokienez) % 53,57koa da, hau da, aurreko hiruhilekoan erregistratutakoa baino 0,18 portzentaje-puntu handiagoa. Urteko aldakuntzari dagokionez, tasa horrek 2,24 portzentaje-puntuko igoera izan du.

1. TAULA

Okupatuak, autonomia-erkidegoaren arabera (kopuruak milakotan). 2024ko lehen hiruhilekoa.

	Uneko hiruhilekoa	Aurreko hiruhilekoaren gaineko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko beraren gaineko aldakuntza	
		Aldea	%	Aldea	%
GUZTIRA	21.250,0	-139,7	-0,65	615,8	2,98
Andaluzia	3.377,7	-24,7	-0,72	31,2	0,93
Aragoi	616,5	-4,0	-0,65	12,0	1,98
Asturiasko Printzerria	402,3	6,6	1,67	21,8	5,74
Balears, Illes	541,0	-23,1	-4,10	21,8	4,20
Kanariak	996,2	9,8	0,99	46,8	4,93
Kantabria	262,5	6,5	2,54	15,8	6,40
Gaztela eta León	1.001,7	-11,6	-1,14	3,9	0,39
Gaztela-Mantxa	872,6	-27,5	-3,06	2,3	0,27
Katalunia	3.783,8	-17,0	-0,45	192,2	5,35
Comunitat Valenciana	2.297,9	-34,9	-1,50	53,2	2,37
Extremadura	405,8	-12,0	-2,87	1,6	0,40
Galizia	1.127,7	-8,1	-0,72	24,4	2,22
Madrilgo Erkidegoa	3.406,2	44,7	1,33	136,5	4,17
Murtziako Eskualdea	671,7	-6,8	-1,00	18,0	2,76
Nafarroako Foru Komunitatea	303,9	1,1	0,36	15,4	5,35
Euskal Autonomia Erkidegoa	985,0	-39,2	-3,83	20,3	2,11
Errioxa	143,1	-1,3	-0,87	-2,2	-1,54
Ceuta	27,5	1,3	5,08	-1,2	-4,29
Melilla	26,7	0,5	1,77	1,9	7,59

Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren inkestatik abiatuta.



LANGABEAK ETA LANGABEZIA-TASA

Biztanleria langabea. Pertsona langabeak 1.500 gutxiago dira 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean, eta 29.400 dira. Termino erlatiboetan, langabeziaren hiruhilekoko aldakuntza $-4,78\%$ koa da. Azken hamabi hilabeteetan, 10.800 langabe gutxiago daude ($-26,80\%$). Sexuaren arabera, 2023ko data berarekin alderatuta, 4.800 gizon gutxiago daude langabezian ($-19,76\%$), eta 6.000 emakume gutxiago ($-30,77\%$).

Langabezia-tasa. Nafarroan, langabezia-tasak 0,43 portzentaje-puntu egin du behera aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta $8,82\%$ koa da, Espainiako erkidego guztietako laugarren baxuena. Azken 12 hilabeteetan, tasa horrek 3,40 portzentaje-puntu egin du behera.

Langabezia-tasa, sexuaren arabera. Emakumeen langabezia-tasak 2,23 portzentaje-puntu egin du behera, eta $8,74\%$ koa da. Gizonenak, berriz, 1,16 portzentaje-puntuko igoera izan du, eta $8,89\%$ koa da.

2. TAULA

Jarduera- eta langabezia-tasak, autonomia-erkidegoaren arabera (%).2024ko lehen hiruhilekoa.

	Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	
Madrilgo Erkidegoa	63,27	Melilla	32,44
Katalunia	61,74	Ceuta	28,99
Balears, Illes	61,47	Andaluzia	17,77
Kanariak	60,20	Extremadura	17,61
Melilla	59,57	Balears, Illes	15,48
Ceuta	59,54	Gaztela-Mantxa	15,00
Murtziako Eskualdea	59,44	Kanariak	14,88
Comunitat Valenciana	58,75	Comunitat Valenciana	13,44
Nafarroako Foru Komunitatea	58,75	Murtziako Eskualdea	12,95
Nazionala	58,63	Nazionala	12,29
Aragoi	58,47	Asturiasko Printzerria	11,40
Errioxa	58,18	Errioxa	11,04
Gaztela-Mantxa	57,80	Galizia	10,45
Andaluzia	56,55	Gaztela eta León	10,26
Euskal Autonomia Erkidegoa	56,40	Katalunia	9,48
Kantabria	55,80	Madrilgo Erkidegoa	9,19
Extremadura	54,50	Nafarroako Foru Komunitatea	8,82
Gaztela eta León	53,66	Euskal Autonomia Erkidegoa	8,53
Galizia	53,18	Aragoi	8,04
Asturiasko Printzerria	50,81	Kantabria	7,53

Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren inkestatik abiatuta.



BIZTANLERIA AKTIBOA ETA JARDUERA-TASA

Biztanleria aktiboa. Biztanleria aktiboak behera egin du, eta 400 pertsona gutxiago dira urte honetako lehen hiruhilekoan; guztira, 333.300 dira. Gizonak 2.200 gehiago dira, eta emakumeak, berriz, 2.600 gutxiago. Aktiboen hiruhilekoko aldakuntza-tasa $-\% 0,11$ koa izan da.

Urteko aldakuntza-tasa. Urteko terminoetan, biztanleria aktiboak gora egin du, eta 4.700 pertsona gehiago dira. Biztanleria aktiboaren urteko aldakuntza-tasa $\% 1,42$ koa da.

Jarduera-tasa. Jarduera-tasak 0,09 puntu egin du behera aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 0,27 puntu egin du gora iazko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta $\% 58,75$ koa izan da. Gizonen tasak 0,57 portzentaje-puntu igoera izan du, eta $\% 63,88$ koa da; emakumeen tasak, berriz, 0,74 portzentaje-puntu egin du behera, eta $\% 53,76$ ra iritsi da.

BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA

Biztanleria ez-aktiboa. Biztanleria ez-aktiboak gora egin du, eta 500 pertsona gehiago dira urteko lehen hiruhilekoan; guztira, 234.000 dira. Gizonen kopuruak behera egin du, eta 1.200 gutxiago dira, eta emakumeenak gora egin du, eta 1.700 gehiago dira. Ez-aktiboen hiruhilekoko aldakuntza-tasa $\% 0,21$ koa izan da.

Urteko aldakuntza-tasa. Urteko terminoetan, biztanleria ez-aktiboak gora egin du, eta 600 pertsona gehiago dira. Pertsona ez-aktiboen urteko aldakuntza-tasa $\% 0,26$ koa izan da.

BIZTANLERIA ETA ETXEAK

16 urteko eta gehiagoko biztanleria, guztira. 2024ko lehen hiruhilekoan, Nafarroak 16 urteko eta gehiagoko 567.300 biztanle ditu, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 200 gehiago ($\% 0,03$) eta duela urtebete baino 5.300 gehiago ($\% 0,94$).

Etxeak. Foru Komunitatean, 270.500 etxe daude guztira, eta, haietatik, 194.300ek kide aktiboren bat dute (okupatua edo langabea), eta gainerakoek (76.300 etxek) ez dute kide aktiborik.

Nafarroan, 11.700 etxek kide aktibo guztiak dituzte langabezian; 2023ko aldi berean baino 3.700 gutxiago dira.




URTARO-ERAGINIK GABEKO SERIEAK

2024ko lehen hiruhilekoan, enpleguaren hiruhilekoko aldakuntza-tasa, urtaro-eraginik gabeko terminoetan, % 0,97koa da.

1. GRAFIKOA

Urtaro-eraginik gabeko lanaren bilakaera, hiruhilekoko aldakuntza-tasan




Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren inkestatik abiatuta.

Eta langabeziaren urtaro-eraginik gabeko emaitzei dagokienez, % 0,69ko beherakada izan da.

2. GRAFIKOA

Urtaro-eraginik gabeko langabeziaren bilakaera, hiruhilekoko aldakuntza-tasan



Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren inkestatik abiatuta.




OKUPATUEN ETA LANGABEEN FLUXUAK¹

Lana. 2024ko lehen hiruhilekoan, lanerako sarrera-fluxua, guztira, 13.600 pertsonakoa izan da; kopuru hori aurreko urteko hiruhileko berekoa baino handiagoa da (3.400.200 pertsona gehiago). Bestalde, okupazioaren irteera-fluxua 15.500 pertsonakoa da: aurreko urteko hiruhileko berean erregistratutakoa baino 1.200 pertsona gutxiago.

3. GRAFIKOA

Okupazioan sartzen eta irteten diren pertsonen fluxua (milakoak)




Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren fluxuen estatistikatik abiatuta.

Langabeak. Duela hiru hilabete langabezian zeuden 17.000 pertsona gaur egun ez daude langabezian; alegia, aurreko urteko aldi berean baino 5.500 pertsona gehiago. Bestalde, langabezian sartu diren pertsonen fluxua, guztira, 16.400 pertsonakoa da, hau da, 2023ko lehen hiruhilekoan zeuden 17.200 pertsonak baino 800 pertsona gutxiago.

4. GRAFIKOA

Langabezian sartzen eta irteten diren pertsonen fluxua (milakoak)



Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren fluxuen estatistikatik abiatuta.

¹ Epigrafe honetan, Biztanleria Aktiboaren Fluxuen Estatistika eragiketaren emaitzak jasotzen dira. Hura prestatzeko erabilitako metodologia dela eta, emaitzek ez dute zertan bat etorri hiru hileroko BAiko saldo garbiekin, eta desberdintasunak, batez ere, "ez dira jasotzen" kolektiboaren arabera dira (hiruhileko batetik bestera igarotzean 16 urte betetzen dituzten pertsonak eta aurreko hiruhilekoan Espainian bizi ez zirenak).



BAI NAFARROAN, LABURPEN-KOADROAK

3. TAULA

Biztanleria aktiboa eta ez-aktiboa (milaka pertsona)

	16 urteko eta gehiagoko biztanleria	Biztanleria aktiboa			Biztanleria ez-aktiboa
		Guztira	Biztanleria okupatua	Biztanleria langabea	Guztira
2023 – I	562,1	328,7	288,5	40,2	233,4
2023 – II	562,9	329,4	300,1	29,3	233,5
2023 – III	565,1	335,1	303,5	31,6	229,9
2023 – IV	567,2	333,7	302,8	30,9	233,5
2024 – I	567,3	333,3	303,9	29,4	234,0

Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren inkestatik abiatuta.

4. TAULA

Biztanleria aktiboa, okupatua eta langabea, sexuaren arabera (milaka pertsona)

	Biztanleria aktiboa			Biztanleria okupatua			Biztanleria langabea		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
2023 – I	328,7	175,5	153,1	288,5	154,8	133,7	40,2	20,7	19,5
2023 – II	329,4	175,2	154,2	300,1	161,2	138,9	29,3	13,9	15,3
2023 – III	335,1	178,3	156,9	303,5	161,9	141,6	31,6	16,3	15,3
2023 – IV	333,7	176,6	157,1	302,8	163,0	139,9	30,9	13,7	17,2
2024 – I	333,3	178,8	154,5	303,9	162,9	141,0	29,4	15,9	13,5

Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren inkestatik abiatuta.

5. TAULA

Jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasa, sexuaren arabera (%)

	Jarduera-tasa			Enplegu-tasa			Langabezia-tasa		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
2023 – I	58,48	63,42	53,68	51,33	55,94	46,86	12,22	11,79	12,71
2023 – II	58,52	63,23	53,96	53,32	58,20	48,60	8,88	7,95	9,94
2023 – III	59,31	64,00	54,76	53,72	58,13	49,43	9,43	9,16	9,73
2023 – IV	58,84	63,31	54,50	53,39	58,42	48,53	9,25	7,73	10,97
2024 – I	58,75	63,88	53,76	53,57	58,20	49,06	8,82	8,89	8,74

Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren inkestatik abiatuta.

6. TAULA

Etxe-kopurua. Guztizkoa eta kide guztiak langabezian dituzten etxeen kopurua

	Etxeak guztira	Kide guztiak langabezian dituzten etxeak
2023 – I	268.700	15.400
2023 – II	268.200	8.000
2023 – III	269.900	11.200
2023 – IV	270.100	8.900
2024 – I	270.500	11.700

Iturria: Nastat, INEren Biztanleria aktiboaren inkestatik abiatuta.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00



OHAR METODOLOGIKOA

Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) 1964. urtetik egiten da, eta, gaur egun, indarreko metodologia 2021ekoa da, aurreko metodologia (2005ean hasia) Lan Indarraren Europako Inkestaren araudi berrira egokitzen duena.

Etengabeko eta hiru hilean behingo ikerketa bat da, eta familiei zuzentzen zaie. Haren helburu nagusia da lan-indarraren eta haren kategorien (okupatuak, langabeak) datuak eskuratzea, bai eta lan-merkatutik kanpoko biztanleena (ez-aktiboak) ere.

BAIk 2021etik 2023ra bitarteko estimazioetan sartu ditu 2021eko Biztanle eta Etxebizitzen Zentsuaren zifrak; horregatik, serieak berrikusi dira 2021etik aurrera (urte hori barne).

Inkesta mota: jarraitua; hiru hilean behin egiten da.

Biztanleria-eremua: familia-etxebizitzetan bizi den biztanleria.

Eremu geografikoa: lurralde nazional osoa.

Emaitzen erreferentzia-aldia: hiruhilekoa.

Informazioaren erreferentzia-aldia: elkarrizketaren aurreko astea.

Laginketa-mota: bi etapakoa, eta geruzatuta dago lehen etapako unitateetan. Lehen etapako unitateak zentsu-sekzioak dira, eta bigarren etapakoak, bizilagunak dituzten familia-etxebizitzak.

Biltzeko metodoa: elkarrizketa pertsonala, telefono bidezkoa eta web bidezkoa.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI). 2024ko lehen hiruhilekoa.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

